

# ESPOSIZIORAKO AUKERA TXIKIA DUTEN ENPRESETAN HARTU BEHARREKO PREBENTZIO NEURRIAK

Enpresa bakoitzak **Kontingentzia Plan** bat izan beharko du, zeinean jasoko dituen prozeduren eta jardueren kudeaketa eta koronabirusaren aurrean beharrezko segurtasun eta osasun bermekin lan egiteko behar diren prebentzio neurri egokiak.

Lan hori errazteko, prebentziozko **jarraibideen bilduma** hau eskaintzen dizuegu, osasun agintariak eta Osalanek emandako neurrietan oinarrituta, koronabirusaren aurrean **esposizio probabilitate txikia** duten erakundeetan jarduteko (adibidez, administrazio langileak, arrisku erantsirik gabeko hautaketa prozesuak, garraio publikoko gidariak, segurtasun langileak...).

## KONTINGENTZIA-PLANAN, BESTEAK BESTE, ALDERDI HAUEK JASO BEHAR DIRA:

- **Garrantzizko informazioa** eskaini eta sustatu, liburuxketan, karteletan... jarraitu beharrezko prozedurei buruz: **eskuen higiena, maskaren eta norbera babesteko ekipamenduen erabilera, lanlekuaren garbiketa, sarrerak, segurtasun distantziak, etxerako itzulera, arduradunari eman beharrezko informazioa, sintomen aurrean nola jokatu...**
- Langileei informazioa eman ezarritako **osasun gomendioei** buruz.
- **Beharrezko higiene produktuak** bildu **eta eskura eduki**: xaboia eta lehortzeko papera, soluzio hidroalkoholikoa eta/edo erabili eta botatzeko eskuzapiak, **maskarak, eskularruak eta bestelako norbera babesteko ekipamendu batzuk**.
- Gauzatu diren **ekintzen erregistro eguneratu** bat izan, datak eta lotutako dokumentuak ere jasota.



## LANTOKITIK SARTZEA ETA IRTETEA:

- **Zereginak, sarrerak eta irteerak planifikatu**, halako moldez non une oro bermatuko den langileen arteko **segurtasun distantzia** eta pilaketak saihestuko diren. (Sustatu **ordutegiak malgutzeko neurriak**, txanda-plana eta ordutegi mailakatuak).
- Posible bada, jarri **ate bat sartzeko eta beste bat irteteko**, eta **utzi ateak eta tornuak irekita**.
- **Sarrera kontrolatu**, posible bada (adibidez, tenperatura hartu). Azterna bidez presentzia kontrolatu ordez, beste sistema bat erabili.
- Ahal den neurrian, **maskarak eman** instalazioetara sartzen diren pertsonen, eta zehaztu nola erabili behar diren zereginetan. Maskarak **erabiltzea gomendatzen da**, ezin bada segurtasun-tartea gorde. Bezeroek erabili behar badute eta jarduerak hala eskatzen badu, **eskatu maskarak erabiltzeko\***. Baloratu erabili eta botatzeko eskularruen (latexezkoak edo nitrilozkoak) erabilera.

**Kontingentzia-plana** prebentzio zerbitzuarekin elkarlanean egin beharko da, eta segurtasun eta osasun batzordearen edo langileen ordezkariarekin kontsultatu eta adostu beharko da, halakorik balego.



## GARBIKETA ETA HIGIENEA:

- Instalazio eta lanlekuak garbitu eta desinfektatu lanean **hasi aurretik**, amaitzean eta, ahal bada, lanaldian zehar.
- Ezinbestekoa da **garbiketa** eta aldizkako higienizazioa **bermatzea** teklatueta, ukipen-pantailetan, saguetan, aginte-idazmahaietan, ateetako heldulekuetan, etengailuetan, barandetan, komunetan, txorrotetan, bereizketa manporetan, hala bulegoetan nola ekoizpen postuetan.
- Ahal bada, airea berritzeko, eremuak sarri aireztatu, leihoak nahiz beste irekidura batzuk baliatuz.
- **Klimatizazio sistemen** aire eta aireztatze iragazkien garbiketa indartu, halakorik bagego.
- **Higiene produktueterako sarbidea erraztu**: ura eta xaboia eta lehertzeko papera, soluzio hidroalkoholikoa eta/edo erabili eta botatzeko eskuzapiak.
- Erabili eta botatzeko materialetarako, **berriarazko zakarrontziak** jartzeko eremuak zehaztu behar dira. Zaborrontzian, itxi daitekeen **plastikozko poltsa** bat egon beharko da, eta tapa izan beharko du, ahal dela pedal bidez irekitzen dena.
- Zakarrontzi horietako **hondakinak** errefus gisa **kudeatu** beharko dira.
- Uniformeak erabiliz gero, poltsetan sartu, itxi eta ohiko lekura bidali behar dira, eta 60 eta 90° C-ko tenperaturan garbitu. Jantziak edo poltsak eskuetan erabili ondoren, eskuak garbitu beharko dira behar bezala.

## LANTOKIAN:

- Lantokitik sartu eta irteterakoan, **eskuen higienarako sistemak** jarri (oinarri alkoholikoa duen gel desinfektatzailea).
- **Bisitarien, kontratisten, hornitzaileen eta garraiolarien sarrerak murriztu**. Halakoak sartzea beharrezkoa bada, ezarri berariazko neurriak, eta jarri ikusteko moduko leku batean. Aurrez zehaztu behar da nola jokatu, enpresako langileekin igaro beharreko denbora eta kontaktua minimizatzen.
- **Telelana** ahalik eta gehien erraztu.
- Mugatu laneko bidaiak eta aurrez aurreko kontaktua; sustatu deiak eta **bideokonferentzia bidezko bilerak**.
- **Lantoki barruko joan-etorriak** minimizatu.
- **Edukiera mugatu**, instalazio edo esparru itxietan.
- Aztertu lekuaren eta lan-prozesuen distribuzioa eta antolamendua, distantzia bermatzeko. (Ezarri banatzeko oztopo fisikoak: leihatilak, metakrilatozko manparak, gortina gardenak, distantziak erakusmahaien artean...).
- **Aldagelen eta komunen** erabilera mugatu.
- Normalean erabiltzen diren elementu komunen erabilera mugatu (**igogailuak**, ateetako **heldulekuak**, **makina banagailuak**, **eskaileretako eskubandak**).
- Ahalik eta gehien mugatu **elikagaien** manipulazioa eta kontsumoa.
- **Jendea pilatzeko arriskua** duten jardueri dagokienez, normaltasunera itzultzeko pausoa azkena izango da (jantokiak, atsedenerako guneak...).

**Oharra:** ezarritako jarduteko plana egunean eduki, osasun agintariekin, Osalanek edo erakunde eskudunek igorritako eguneraketan arabera.

\* Maskarak oro har aplikatu beharreko higiene eta osasun arauak edo/eta gomendioak eta prebentziozko jarraikiz erabili beharko dira, edo enpresarentzat, produkzio- edo ekonomia-sektorearentzat berariaz ezarritako neurrien arabera.